

GAKO EKONOMIKOAK

- Gatazka belikoaren inguruko negoziatioek porrot egin dute.
- Gerraren ondorioz inflazio tentsioak areagotu dira eta, ondorioz, banku zentralak zorrotzagoak dira prezioen gorakadari eusten saiatzean.
- Munduko burtsa nagusietan hegazkortasuna eta jaitsierak izan dira protagonistak, sakonagoak AEBn ta Txinan Europan baino. Errenta finkoan galerak, merkatuko tasen igoeraren ondorioz.
- Petrolioaren prezioa berdin bukatu da hil bukaeran, nahiz eta haren prezioak hegazkortasun handia izan duen. Euroak balioa galdu du dollarrarekiko.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Apirilean zehar, tentsio geopolitikoek eta makroekonomikoez gain, banku zentralak aurreratutako tasen igoeretan hartutako abiadura, Txinako COVIDaren ondoriozko murrizketak eta lehen hiruhilekoko enpresa emaitzen argitalpena gehitu zaie. Bestetik, badirudi Ukrainako bake negoziatioek porrot egin dutela eta, horrek ekonomien gaineko gerraren inpaktu sakonago baten beldurra eragin du. Bestetik, Txinak Koronabirusaren aurka borrokatzeko ezarritako konfinamendu neurri zorrotzek eragin handia izan dute salgaien garraioan, eta hornikuntza kateetan arazoak izan dira berriz ere. Horrek berriro handitzen du herrialde garatuetan bizi den tentsio inflazionista. Ondorioz, Banku Zentralek tonua gogortu dute inflazioaren igoera gerarazi eta prezioen egonkortasunari buruzko konpromisoa betetzeko. Erreserba Federala bada ere igoeren prozesu honetan erakunde aurreratuena, BCEak onartu du urte bukaeran interes tasak igo ditzakeela. Bien bitartean, makro ingurunean, datu batzuek agerian uzten hasi dira jardueraren moteltzea. Hortaz, Europan, AEBn eta Txinan, lehenengo hiruhileko BPGren datuetan oinarrituta, hazkuntza nabarmen moteldu dela ikus dezakegu. Azkenik, arlo politikoan, garrantzitsuen Macronek hauteskundera presidentzialak irabazi dituela izan da, bere bigarren agintaldia eskuratu.

ERRENTA ALDAKORRA

Apirila oso txarra izan da burtsetan. Gaur egungo inflazio-egoerak, makro datu ahulagoak, Shanghaiko konfinamenduak gogortzeak eta Ukrainako gerraren jarraitutasunak jaitziera sakonak eragin dituzte, bereziki AEBetan. Hala ere, hilaren azken zatian, hile hasierako tentsioak areagotzea lortu da, diru-pizgarrirei esker ekonomia suspertzeko eta Txinako Gobernuak iragarritako teknologia arauen "malgutasun" posibleari esker. Europan ere garrantzitsua izan da zigorra, batez ere Errusiaren eraginpean gehien egon diren merkatuetan, hala nola Alemanian eta Frantzian, % 2 inguru galdu baitdute, bereziki automobilak eta kontsumoaren jasotako zigorraren ondorioz. Espainiak eta Erresuma Batuak, berriz, hilabetea positiboan ixtea lortu dute, bertako bankuek argitaratutako emaitza onak, lehenak, eta meatzaritza enpresen portaera onak eraginda, bigarrenak. Hala, Ibx35a % 1,65 igo da, ondoz ondoko hiru hilabeteko erorketa-bolada hautsiz, eta Britainia Handiko FTSEk % 0,38 aurreratu du. Wall Streetek izandako murrizketak askoz ere handiagoak izan dira, tasen kurbaren igoeragatik oso zigortua. Nasdaq indizeak % 11 baino gehiago galdu du, 2008ko urritik hilabete txarra izanik. Bestetik, Dow Jones indizeak % 4,9 galdu du, zortzi hilabetetan galera handienarekin, eta S&P 500ak aldiz, % 9 inguru, 2020ko martxoan pandemia hasi zenetik mozketak handiena. Inbertitzaileek teknologia handien kontuetan izandako erreakzioak indizeen portaera hondatu zuen. Nazioarteko gainerako merkatuetan, % 3,50eko jaitziera Japoniarrentzat eta zenbaki gorriak gainerakor gehienetan.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2022ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	8.584,20	EUR	%1,65	%-1,49
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.802,86	EUR	%-2,55	%-11,53
S&P-500	AEB	4.131,93	USD	%-8,80	%-13,31
DOW JONES	AEB	32.977,21	USD	%-4,91	%-9,25
NASDAQ 100	AEB	12.854,80	USD	%-13,37	%-21,23
NIKKEI-225	JAPONIA	26.847,90	JPY	%-3,50	%-6,75
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.076,19	USD	%-5,75	%-12,65
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.795,62	EUR	%-8,43	%-13,49

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

Tentsio inflazionisten ondorioz, zor subiranoaren errentagarritasunak igo egin dira Atlantikoaren bi aldeetan. Epe ertainera hazkunde ekonomiko txikiagoa izateko itxaropenek ez dute saihestu tasa-kurbaren beste igoera bat, eta prezioa jarri diote Fed-ak eta BCEk diru-politika gogortzeari (tasen igoera eta murrizketa). Testuinguru horretan, bonu alemanaren errentagarritasunak oinarritzko 39 puntu irabazi ditu apirilean, % 0,94 arte. Espainiako bonua 10 urtera 54 puntu igo da, % 1,97 arte, 2015etik lortzen ez duen maila. Bestetik, AEBn, 10 urterako zorrak % 2,93ko errentagarritasuna eskaintzen du, aurreko hilean baino 60 o.p. Azkenik, errenta pribatuak ere zigor bat jasan du eta diferentzialak areagotu ditu.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2022ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,43	0,03	0,14
	6 HIL.	-0,23	0,14	0,32
	12 HIL.	0,17	0,24	0,67
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	0,26	0,34	0,88
	5 URTE	0,68	0,30	1,13
	10 URTE	0,94	0,39	1,12
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	0,57	0,36	1,19
	5 URTE	1,31	0,47	1,47
	10 URTE	1,97	0,54	1,41

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIK

Fed-ek planteatzen duen egokitzapenik bortitzean, EBZak aurreikusitako ibilbide-orriaren eta Ukrainako gerrak Europan duen eragin ekonomiko handienaren aurrean, dibisen merkatuan nabari da. Ondorioz, euroak % 4,7 galdu zuen, 10 urtetako hileko balantzerik okerrenarekin. Diba bakarrak ere apur bat galdu du liberarekiko (- % 0,57). Lehengaietan, hileko zenbaketa orokorrean, ia ez da aldaketarik izan petrolioaren prezioan, nahiz eta hilabetean hegazkortasun handia bizi izan duen, Errusiako esportazioen aurkako zehapen-mehatxuek, koronabirusak egindako konfinamenduen ondorioz Txinak eskaera txikiagoa izateak eta AEBek bere historiako petrolio-erreserba gordinen merkatura itenbiderik handiena iragarri izanak.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg